

ESKANTZA INMOBILIARIOA

1996ko 4. hiruhilekoa

1. kapitula

SARRERA

1. SARRERA

Ondoren aurkezten dena, 1996. urteko laugarren hiruhilekoari dagokion EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko azterlana da.

Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, hiruhileko honetan etxebizitzak eskaini dituzten EAEko sustatzaile taldeei nahiz jabetza inbiliarioaren agenteei (JIA) egindako zenbait inkestatan oinarritu da. Sustatzaileen kolektiboan egindako prospekzioak, 1.1. taularen arabera lurraldeetan banatu ziren laginak jarraituz, etxebizitzaren eskaintza egiten duten 125 identifikatu ditu (salgai bost etxebizitza baino gehiago dituzten sustapenak); 125 agente inbiliariori egin zaie kontsulta¹. 1.1. Taulak bakoitzari dagozkion laginen banaketa geografikoa jasotzen du.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..**1. taula. Egindako inkesta eraginkorren lurraldekako banaketa.**

	<i>SUSTATZAILEAK</i>	<i>INMOBILIARIAK</i>
<i>Araba.....</i>	17	12
<i>Gipuzkoa.....</i>	61	51
<i>Bizkaia.....</i>	47	62
<i>EAE.....</i>	125	125

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

Inkesta egiterakoan, eragile bakoitzari, une horretan (abendua) zuen eskaintza kuantifikatu eta kualifikatzeko eskatu zitzaion. Sustatzaileen kasuan etxebizitza berriak dira, noski, eta jabetza-agenteen kasuan, berriz, etxebizitza berriak (sustatzaileen kontura salduak) nahiz erabilitako etxebizitzak (partikularren kontura salduak) dira. Bertan, merkatuaren egungo egoerari buruzko galdera baloratibo batzuk ere barne hartzen ziren. Txostena irakurri aurretik egin beharreko oharren artean, prezioak, EAEko eskaintzen zati nagusia osatzen duten etxebizitza kolektiboak dagozkienak direla gogorarazi behar da.

¹ Jabetza Inbiliarioaren Agenteen lagina 125era gehitu zen 1996ko bigarren hiruhilekoan; estatistika hauek egiten hasi zirenetik (1994) ordurarte inkesta egiten zitzairen JIAk 100 izaten ziren.

Denborazko bilakaerari dagokionez, txostenean, behatutako aldagaiak (etxebizitza-kopurua edo prezioak) aurreko urteko hiruhileko berean izan zuen balioarekiko izan dituen aldaketak islatzen dira bereziki, beti ere azken hiru hilabeteetan izandako bilakaera ere kontuan izanik.

Etxebizitzen prezioei dagokienez, batezbesteko prezio ponderatuak² direnez, beren bilakaera ondorengo faktoreen emaitza dela azpimarratu behar da: prezioak, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza-kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Etxebizitzen batezbesteko prezioetan eragina du, halaber, eskaintzen diren etxebizitzen batezbesteko azaleraren bilakaerak eta, orokorrean, beren tipologiak.

Zentzu honetan, eremu espazial jakin bateko prezio-aldaketak, batezbestekoen aldaketak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzen kostuaren prezio-jaiste orokor gisa derrigorrez ulertu behar, prezio txikiagoko etxebizitzen presentzia handiagoa duten eskaintza-egitura baten konfigurazioa bezala baizik.

Baina hori bai, ahal den neurrian etxebizitzen “saskiaren” osaera izan diren aldaketek prezioen bilakaeraren interpretazioan eragin dezaketen distortsioa saihesteko, aurreko hiruhilekoan hasi zenarekin jarraitzeko, *eredu-etxebizitza* deitu den “produktu” homogeenago baten jarraipena barne hartzen da. Honen definizioan parte hartzen duten eskakizunak hauek dira: etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainitakoa, akabera “normalekoa” eta 60 eta 90 m² arteko azalera duen etxebizitza. Akaberaren, merkaturatzeko moduen edo tipologiaren³ arabera eskaintzaren osaera izandako aldaketek batezbesteko prezio globalean izan dezaketen eragina (edo interferentzia) neutralizatzeko helburua du.

² Etxebizitzako zein metro karratuko batezbesteko salmenta-prezioak etxebizitza-mota bakoitzaren bolumenaren arabera ponderazioa eginez kalkulatu dira.

³ Zoritxarrez etxebizitzaren kokaguneak duen eragina kontrolatu edo isolatzeko modurik ez dago eta hau, zalantzarik gabe, prezioaren konfigurazioan garrantzi gehien duen faktorea da. Horretarako, kokagunearen arabera errenta homogeenak dituzten area geografikoak identifikatu eta hauetako bakoitzeko etxebizitza-motaren prezioaren jarraipen bat egin beharko litzateke, adierazgarritasun nahikoa izateko ondorioz laginek bete beharko dituzten eskakizun guztiekin.

Hala ere, ematen diren emaitzek lagin izaera dutela esan beharra dago eta hau bereziki garrantzitsua da eskaintzen kuantifikazioari dagokionez. Erabilitako etxebizitzei dagokienez azpimarratu beharreko beste gauza bat zera da: aipatutako prezioak saltzaileak *eskatutakoak* dira eta hauek benetan ordaindutakoetatik edo bi alderdien artean negoziatutakoetatik oso desberdinak izan daitezke batzuetan.

Emaitzazko txostena sarrera hau barne hartzen duten zazpi kapitulutan egituratzen da. 2. kapituluak eskaintzaren eta bere bilakaeraren ikuspegi orokor bat ematen du, hau da, bere bolumena etxebizitza-motaren eta azalera erabilgarriko prezioen nahiz prezio absolutuen arabera. Baina hori bai, aurreko edizioetan ez bezala, hemendik aurrera 2. kapitulua sintetizatu egiten da, hau da, bertan Autonomia Erkidegoaren mailan bildutako emaitzak bakarrik jasoko dira eta lurralde historikoei dagokien analisia ondorengo dagozkion kapituluetan egingo da.

3. kapitulua etxebizitzaren salmentari buruzkoa da eta hasieran eraikuntza berriak aztertzen ditu, sustapenen ezaugarrietan ematen diren aldaketak nahiz etxebizitzaren eskaintza kuantifikatu eta prezioak aztertzerakoan etxebizitzak berak aztertuz. Ondoren, salgai dauden erabilitako etxebizitzaren ezaugarriak aztertzen ditu. Esan berri den bezala, bi kasuetan, lurraldeei dagozkien xehetasunak ematen dira.

4. kapituluan, alokatzeko dauden etxebizitzaren eskaintzaren tipologia, prezioa eta bolumenaren bilakaera islatzen da.

5. kapituluan ondorengo eremu espazialeko etxebizitzaren eskaintza zehazten da: hiriburuetan, hiriburuetako eskualde-egituretan, hauek kanpo, eta hiru lurralde historikoetan, hiriburuetako eskualde-egiturak kanpo (eraskin batean espazioei buruzko datu gehiago aurki daitezke). 6. kapituluak berriz garaje eta lokaletan jaso diren bolumenak eta prezioak islatzen ditu.

Azkenik, 7. kapituluan euskal merkatu inmobiliarioaren dinamika islatzen da, inkestaren xede izan diren sustatzaile eta agenteen begiekin ikusita. Bertan, aurreko hiruhilekoari buruz nahiz etorkizunari buruz duten iritzia islatzen da.

Ondoren, 1.2. taulan, aurreko hiruhilekoan, aribidekoan eta aurreko urtekoan etxebizitzaren merkatu libreari buruz lortutako funtsezko aldagaien laburpen sintetikoa aurkezten zaigu.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..2. taula. **Etxebizitzen eskaintzaren adierazleen laburpena. Merkatu librea.**

	1995	1996	
	4. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa
1. ETXEBIZITZA BERRIA			
• Salgai dagoen etxebizitza-kopurua	2.673	3.531	2.785
• Prezioa/m ² *-Eredu-etxebizitza** EAE	216	206	198
• Prezioa/m ² *-EAE guztira	251	249	252
• Prezioa/m ² *-Gasteiz	253	298	297
• Prezioa/m ² *-Donostia	369	358	324
• Prezioa/m ² *-Bilbo	281	272	283
• Eskaintzen den sustapen-kopurua:			
• Guztira	129	186	191
• Lehen aldiz hiruhilekoan antzemandakoa.....	14	31	8
2. ERABILITAKO ETXEBIZITZA (***)			
• Salgai dagoen etxebizitza-kopurua	8.669	11.752	12.186
• Prezioa/m ² *-EAE	229	249	232
• Prezioa/m ² *-Gasteiz.....	252	262	265
• Prezioa/m ² *-Donostia	345	337	340
• Prezioa/m ² *-Bilbo	205	212	220
3. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA			
• Etxebizitza-kopurua	976	1.218	1.133
• Errenta/hil*-EAE.....	92	87	86
• Errenta/hil*-Gasteiz.....	106	94	93
• Errenta/hil*-Donostia	114	118	112
• Errenta/hil*-Bilbo	96	87	83
4. MERKATUKO INDIZEAK			
• Dinamismo-indizea****	23,9	32,4	33,9
• Salmenten aurreikuspen-indizea (hurrengo hiruhilekoa)****	55,5	35,8	69,8
• Prezioen aurreikuspen-indizea (6 hilabetera)**** ...	60,0	55,3	56,9
• Hurrengo hiruhilekoan 1. aldiz eskaintzeko etxebizitzaren aurreikuspena (babes.+librea).....	1.304	2.048	3.110

(*): Mila pezetatan.

(**): Eredu-etxebizitza: berria, kolektiboa, erregimen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainia, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

(***): 1995. urteko eta 1996. urteko emaitzak alderatzerakoan, azken honetan (96-II hiruhilekotik aurrera) inkesta egin zitzaizen JIAen kopurua 25 unitatez gehitu zela kontuan izan behar da. Baina hori bai, duela urtebete JIAen lagina osatzen zutenen eskaintza besterik kontuan izaten ez bada, eskaintzen diren etxebizitzak 9.289 direla ikusiko dugu eta honek, erabilitako etxebizitzaren eskaintzaren gehikuntza globala esan nahi du edozein kasutan.

(****): 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitartean mugitzen da.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

2. kapitula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA

- ❑ 1996ko laugarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera EAEn **eskaintzen diren etxebizitzak** guztizko kopurua 17.840 unitatekoa da.
- ❑ **Salgai dauden etxebizitzak** eskaintza osoaren %94 osatzen dute eta guztira 16.690 unitate dira, hauetatik 4.500 (%27) berriak dira eta 12.190 (gainerako %73) erabilitakoak.
- ❑ Duela urtebete antzemandako bolumenarekiko **bilakaerari** dagokionez, *eskaintako etxebizitzetan %16ko gehikuntza* jasotzen dugu, hiruhileko honetan inkesta egin zaien JIAen kopuruaren gehikuntzarekin lotutako distortsio-efektua isolatu ondoren⁴. *Salgai dauden etxebizitzak etxebizitza berriaren segmentuan zein bigarren eskukoan izandako igoera nabarmenak⁵ (+%11 eta +%7 hurrenez hurren)* argi diezaguke eskaintza globalaren dimentsionamendu handiagoaren arrazoia.
- ❑ **Salgai dagoen etxebizitza berria** aztertuz, **sustapen-erregimenaren** araberako banaketa ondorengoa da: 2.785 etxebizitza libre eta 1.718 etxebizitza babestu (BOEak eta gizarte-etxebizitzak barne), aurreko hiruhilekoak berak izanik; pisu erlatiboak %62 eta %38koak dira hurrenez hurren. Duela urtebete jasotako emaitzekin alderatuz, *babestutako etxebizitzak eskaintzan oso gehikuntza handia izan dela (+%24) eta etxebizitza librean askoz ere txikiagoa izan dela (+%4) ikus daiteke.*

⁴ Eskaintzaren aldaketa-tasa, duela urtebeteko laginean nahiz aurtengoan parte hartu duten JIAen etxebizitza-bolumena kontuan izanik eta ondorioz lehenengo aldiz hiruhileko honetan barne hartu diren agente berriak kanpo utziz kalkulatu da.

⁵ Eskaintzen diren etxebizitza berrien kopuruaren aldaketa-tasan ere, 1996ko lehen hiruhilekoan barne hartu diren aldaketa metodologikoetatik eratorritako sustaketa-jardueraren estalduran izan diren hobekuntzen eragina jasan du (gorantz). Hala ere, kasu honetan inpaktuaren zenbatekoa ezin da zehazki isolatu.


¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. taula. **Eskaintzen diren etxebizitzaren bilakaera EAEn.**

	GUZTIRA	SALGAI					ERABILIA*	ALOKATZEKO
		SALGAI GUZTIRA	BERRIA					
			Guztira	BO/Giz. etx.	Libreak			
1994	Batezb.	12.778	11.681	4.721	1.391	3.331	7.029	1.028
1995	Batezb.	12.662	11.681	4.035	1.317	2.718	7.646	986
1995	IV	13.702	12.726	4.057	1.384	2.673	8.669	976
1996	I	15.830	14.760	5.688	1.861	3.827	9.072	1.070
	II	18.004	16.836	5.565	1.966	3.599	11.271	1.168
	III	18.219	17.001	5.249	1.718	3.531	11.752	1.218
	IV	17.841	16.691	4.503	1.718	2.785	12.188	1.150

(*): 1996ko bigarren hiruhilekotik aurrera inkesta egin zaien JIAen lagina 125ekoa da, eta lehenago 100ekoa besterik ez. Aurreko lagina osatzen zuten 100 JIAen eskaintza besterik kontuan izaten ez bada (lehenengo aldiz inkestatu diren JIAk kanpo utziz) egungo eskaintza 9.289 etxebizitzakoa da.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. grafikoa.



- ❑ **Alokatzeko**⁶ dauden etxebizitzaren eskaintzari dagokionez 1.150 unitate antzeman dira, eskaintza osoaren %6. Duela urtebeteko eskaintzarekin alderatzen badugu, mota honetako etxebizitzaren eskaintzak egonkor jarraitzen duela esan daiteke⁷.

2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK

- ❑ 1996. urteko laugarren hiruhilekoan EAEko **etxebizitzaren merkatu librean** (berriak eta erabilitakoak) **metro karratuko batezbesteko prezioa** 236.000 pezetakoa izan da, duela urtebete lortutakoa baino % 0,7 gehiago. Beraz, prezioek azkenaldi honetan izan duten bilakaerak lerro aski egonkorra osatzen du.
- ❑ Etxebizitza **berrien eta erabilitakoen** prezioek izan duten bilakaera desberdina izan dela kontuan izanik⁸, egonkortasuna bietan antzematen da, lehendabizikoetan batik bat, 1995eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta prezio-igoera txikia izan baitute (nominala) (+%0,4, 252.000 pezeta/m² eta +%1,3, 232.000 pezeta/m² hurrenez hurren). Azpimarratzekoa da, halaber, etxebizitza berriaren prezioa erabilitakoaren prezioa baino %9 handiagoa dela.
- ❑ **Babestutako etxebizitzaren** batezbesteko prezioa 113.000 pezeta/m² da, baina babes ofizialekoak gizarte-etxebizitzetatik bananduz, lehenengo prezioa 119.000 pezeta/m² kopurura iritsi da, bigarrenena 86.000 pezeta/m² den bitartean. Aurreko urtekoarekin alderatuz, bilakaera -%2,5 eta +%7,5 izan da hurrenez hurren.
- ❑ **Eredu-etxebizitzari** dagokionez (ikus sarrera), hiruhileko honetan metro karratuko 198.000 pezetako preziora iristen da, erregimen libreko etxebizitza berrien eskaintzan

⁶ Okupazio nagusiko etxebizitzaren eskaintza bakarrik izan da kontuan. Partikularren artean zuzenean alokatutako etxebizitzaren eskaintza ez da barne hartu.

⁷ Berriz ere, aurrez azaldutako prozedura bera aplikatu da aldaketa-tasa kalkulatzeko.

⁸ Kontuan izan behar da agentzia inmobiliarioaren bitartez saldutako etxebizitza erosten duenak azkenean ordaintzen dituen prezioak hasiera batean ezarritakoak baino %10-15 txikiagoak izaten direla batezbeste.

lortutako batezbesteko balioa baino %21 gutxiago. Bere bilakaerak, duela urtebeteko *eredu-prezioari* dagokionez (216.000 pezeta/m²), -%8,3ko aldaketa jasotzen du, aurreko hiruhilekoetan ikusi dugun beheranzko joera baieztatuz.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..2. taula. EAEn salgai dauden etxebizitzaren m²-ko prezioaren bilakaera.


	ETXEBIZITZA LIBREA GUZTIRA (**)	ETXEBIZITZA BERRIA				ERABILITAKO ETXEBIZITZA
		BO/GIZAR. ETXEB.	LIBREAK			
			GUZTIRA	EREDU-ETXEB.		
1994 Batezb.	215	107	211	185	221	
1995 Batezb.	231	117	249	209	225	
1995 IV	234	118	251	216	229	
1996 I	240	122	250	208	236	
II	238	115	247	211	235	
III	233	113	249	206	228	
IV	236	113	252	198	232	

(*) m²-ko mila pezetatan.


(**) Etxebizitza libre berrien eta erabilitakoen batezbesteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..2. grafikoa.



2.3. grafikoa.



- ❑ **Etxebizitzaren batezbesteko prezioari** dagokionez, merkatu librerako 20,6 milioikoa da (etxebizitza berriak nahiz erabilitakoak kontuan izanik) eta 8 milioikoa babestutako etxebizitzaren kasuan.
- ❑ Etxebizitza libre berriaren prezioa bigarren eskukoarenarekin alderatuz, 22,3 milioi (-%2,6 duela urtebetekoarekin alderatuz) eta 20,2 milioi (-%4,7) batezbestekoak lortzen dira.
- ❑ EAEn **alokatzeko** eskaintzen diren bigarren eskuko **etxebizitzaren errenta** hileko 86.000 pezetakoa da, 1995eko laugarren hiruhilekoan antzeman zena baino -%4,4 gutxiago. Beraz, hemen ere beheranzko egonkortasun-ildoan antzeman daiteke.

2.3. taula. EAEn eskaintzen diren etxebizitzaren prezioaren eta errentaren bilakaera.

		ETXEBIZITZA LIBREA GUZTIRA (***)	ETXEBIZITZA BERRIA (*)		ERABILITAKO ETXEBIZITZA(*)	ALOKATZEKO ETXEBIZITZA LIBREAK (**)
			BO/GIZ. ETX.	LIBREAK		
1994	<i>Batezb.</i>	19,3	8,3	20,0	18,5	97
1995	<i>Batezb.</i>	21,5	8,1	22,7	21,0	89
1995	<i>IV</i>	21,6	8,2	22,9	21,2	90
1996	<i>I</i>	21,6	9,2	22,2	21,4	90
	<i>II</i>	21,1	8,4	22,6	20,6	90
	<i>III</i>	20,8	8,2	22,3	20,3	87
	<i>IV</i>	20,6	8,0	22,3	20,2	86

(*) *Etxebizitzako milioi pezetatan.*

(**) *Hileko mila pezetatan.*

(***) *Etxebizitza libre berrien eta erabilitakoen batezbesteko prezioa.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

3. kapitulu

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZ ESKAINZA

3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK

3.1.1. Eskaintzan dauden etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak⁹

- ❑ 1996. urteko laugarren hiruhilekoari dagokion inkestan jaso diren eskaintzan dauden etxebizitzaren **sustapenak** 191 dira (duela urtebete baino %28 gehiago) eta hauetan 8.020 etxebizitza barne hartzen dira. Guztizko honetatik 8 hiruhileko honetan egindako inkestan lehenengo aldiz antzeman dira (aurreko urtean 21) eta (salgai daudenen eta saldu direnen artean) 274 etxebizitza barne hartzen dituzte (guztizkoaren %3).
- ❑ Jasotako sustapen guztietatik 172 erregimen librekoak dira (1995eko laugarren hiruhilekoan 129), 11 babes ofizialekoak (duela urtebete 14) eta 8 gizarte-sustapenekoak (duela urtebete 6).
- ❑ Sustapenen **batezbesteko tamaina** 42 etxebizitzakoa da. Sustapen bakoitzeko etxebizitza-kopurua 37koa da erregimen librekoen artean eta 90ekoa babestutakoen artean. Hiruhileko honetan lehenengo aldiz antzeman diren sustapen librearen batezbesteko tamaina sustapeneko 34 etxebizitzakoa da. Tamainaren arabera sustapen librearen banaketari dagokionez, laginean sartu berri direnen artean 16 etxebizitza baino gutxiagoko sustapenen pisu erlatiboa gehitu dela antzeman daiteke.
- ❑ Jasotako sustapen guztietatik, 2 lehendik zeuden etxebizitzaren **birgaikuntzak** dira eta gainerakoak etxebizitza berrien sustapenak dira, zentzu zorrotzenez.


⁹ Gainerakoak ez bezala, atal hau sustatzaileren inkestatik lortutako informazioan bakarrik oinarritzen da eta *sustapena* erreferentziazko unitate gisa erabiltzen du.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. taula. Zuzenean sustatzaileek eskainitako etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak.

	<i>HIRUHILEKOA GUZTIRA</i>	<i>SUSTAPEN BERRIAK</i>
<i>Sustapen-kopurua</i>	191	8
<i>Libreak.....</i>	172	8
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak</i>	19	0
<i>Sustapenetan barne hartutako etxebizitza- kopurua.....</i>	8.020	274
<i>Libreak.....</i>	6.302	274
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak</i>	1.718	0
<i>Sustapenen batezbesteko tamaina (etx. kp.).....</i>	42	34
<i>Libreak.....</i>	37	34
<i>BO/Gizarte-etxebizitzak</i>	90	0
<i>Sustapen libreen kopurua tamainaren arabera</i>		
<i>< 16 etxebizitza</i>	42	4
<i>16-35 etxebizitza.....</i>	78	2
<i>> 35 etxebizitza</i>	52	2
<i>Babestutako sustapen-kopurua tamainaren arabera</i>		
<i>< 35 etxebizitza</i>	6	0
<i>36-95 etxebizitza.....</i>	9	0
<i>> 95 etxebizitza</i>	4	0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. grafikoa.



- Analizatutako sustapenak barne hartzen dituzten etxebizitzaren **akabera-mailari** dagokionez, “goi-mailako/luxuzko” etxebizitzaren sustapenak %59 (%47 eta %12 hurrenez hurren) eta “normalak” %41 dira. “Behe-mailako” segmentuan barne hartutako sustapenik berriz ez da erregistratu. Sustapenaren erregimena kontuan izanik, babestutako 19 sustapenek akabera “normala” dute, eta sustapen libreen herenari baino ez zaio estandar hori esleitzen.
- **Sustapen libreetan** arreta jartzen badugu, **merkataritza-egoeraren** arabera etxebizitzaren banaketak zera azaltzen digu: hauetan barne hartzen diren etxebizitzaren %31 (%32 duela urtebete) salgai daude. *Sustatzaileak zuzenean merkaturatutako* salgai zeuden etxebizitza berrien kopuru absolutua 1.948 unitatekoa da. Guztizko honetatik, %5 (94 etxebizitza) lehenengo aldiz hiruhileko honetan erregistratu diren sustapen berriak dira.
- Azkenik, duela hiru hilabete salgai zeuden **etxebizitza libreak** kontuan izanik, **salmenten bilakaeraren** jarraipena egin daiteke. Zentzu honetan, azken hiruhilekoan 1996ko irailean antzemandako salgai dauden etxebizitzaren %24 saldu da (sustatzaileen bitartez). Salmenta-kopurua aurreko urteko hiruhileko berean antzemandakoa baino %6 handiagoa izan da, baina sustatzaileek eskaintako etxebizitzaren bolumena ere orduan antzeman zena baino %23 handiagoa izan da.


¡Error! Argumento de modificador desconocido..2. taula. **Erregimen libreko sustapenetan* barne hartutako etxebizitzaren bilakaera**

		ETXEBIZITZAK GUZTIRA	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN % GUZTIZKOAREN /G.
1995	IV	5.044	1.591	31,6
1996	I	6.402	2.445	38,2
	II	6.620	2.450	37,0
	III	6.782	2.442	36,0
	IV	6.302	1.948	30,9

(*): Sustatzaileek zuzenean eskaintakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

3.2. grafikoa.



3.1.2. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta kuantifikazioa

- ❑ 1996. urteko laugarren hiruhilekoari dagokion inkestaren arabera **salgai dauden etxebizitza berrien guztizko kopurua** (libreak eta babestuak) 4.503 unitatekoa da. Guztizko honetatik 3.666 zuzenean sustatzaileei antzeman zaizkie, gainerako 837 etxebizitzak (guztizkoaren %19) inbiliarrietatik datozen bitartean.
- ❑ **Lurraldeka**, Araban %7 daude, Gipuzkoan %42 eta Bizkaian gainerako %51.
- ❑ Salgai dauden etxebizitza berrien **sustapen-erregimenaren** araberako banaketa ondorengoa da: %62 libreak, %31 babes ofizialekoak eta gainerako %7 gizarte-etxebizitzak.
- ❑ Antzemandako salmentan dauden etxebizitza berrien bolumen globalaren **bilakaera** jarraitzen bada, Bizkaian duela urtebete jaso zen zenbatekoarekiko gehikuntza handia

(+%22) azpimarratu behar da. Araban eta Gipuzkoan, berriz, gehikuntza ez da +%2ra iristen.

- Segmentu **librea eta babestutakoa** bereizten baditugu, oso joera desberdinak egiaztatzen dira bai merkatu batean eta bestean, bai lurralde-mailan. Horrela, salgai dagoen babestutako etxebizitzaren bolumena duela urtebetekoarekin alderatzen badugu, oso igoera handia izan du Araban eta, batez ere, Bizkaian (+%22 eta +%38 hurrenez hurren) eta Gipuzkoan, berriz, igoera oso txikia izan da (+%3). Aitzitik, etxebizitza librearen kopuruak Bizkaian bakarrik izan du azpimarratzeko moduko igoera (+%10), baina lurralde honetan babestutako segmentuan antzemandakoa baino askoz ere txikiagoa izan da. Araban salgai dauden etxebizitza libreek behera egin dute (-%4,5) eta Gipuzkoan ia ez dute aldaketarik izan.
- Bilakaera honen emaitza gisa, **babestutako etxebizitzen** eskaintzak oso proportzio handia du Bizkaian, eta lurralde osoan salgai dauden etxebizitza berri guztien %45 baino gehiago izatera iritsi da, Araban eta Gipuzkoan portzentaia hori %28koa besterik ez den bitartean (azken lurralde honetan ez dago gizarte-etxebizitzarik salgai hiruhileko honetan).
- Azkenik, hona hemen beste datu interesgarri bat: **salgai dagoen etxebizitza librearen eskaintzaren berrikuntza-indizea** (hiruhilekoa), hau da, egungo eskaintza osoaren gainean hiruhileko honetan antzemandako etxebizitzek duten pisu erlatiboa. Izan ere, EAE mailan %11koa da (aurreko hiruhilekoan %27koa).

¡Error! Argumento de modificador desconocido..3. taula. **Salgai dauden etxebizitza berriak lurralde historikoka.**

	GUZTIRA		BO/GIZARTE-ETXE BIZITZAK		LIBREAK	
	Kopurua	± % (*)	Kopurua	± % (*)	Kopurua	± % (*)
<i>Araba</i>	298	1,7	84	21,7	214	-4,5
<i>Gipuzkoa</i>	1.899	1,4	544	3,2	1.355	0,7
<i>Bizkaia</i>	2.306	21,9	1.090	38,3	1.216	10,1
<i>EAE</i>	4.503	11,0	1.718	24,1	2.785	4,2

(*): *Etxebizitza-kopuruaren aldaketa, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

- **Eraikuntza-faseari** dagokionez, berriz ere arreta sustapen libreetan jartzen badugu, antzemandako salgai dauden etxebizitza guztien %76 obra-fasean daudela, %13 proiektu-fasean, eta gainerako %11 bukatuta daudela ikus dezakegu. Aurreko urtearekin alderatuz, bukatuta dauden etxebizitzaren proportzioak behera egin du eta proiektuan daudenenak, berriz, gora (%17 eta %8, hurrenez hurren, 95-IV. hiruhilekoan).
- Salgai dauden etxebizitza berrien **tipologiari** dagokionez, %7 baino ez dira familiabakarrak edo adosatua (libreen %8), baina proportzioa duela urtebetekoa baino handixeagoa da (%5).
- Salgai dauden etxebizitza berrien **batezbesteko tamaina** 85 m²-ko azalera erabilgarrikoa da; babestutakoen batezbestekoa, berriz, 71 m²-koa da (69 m² 1995eko hiruhileko berean), eta libreen kasuan batezbestekoa 91 m²-koa da (92 m² 95-IV hiruhilekoan). Izan ere, salgai dauden babestutako lau etxebizitzatik batek 60 m²-tik beherako tamaina dauka, eta erregimen librekoen kasuan proportzio hau hamabi etxebizitzatik batekoa da. Lurraldeka, etxebizitza libre berriek 85 m²-ko batezbesteko azalera dute Araban, 93 m²-koa Gipuzkoan eta 88 m²-koa Bizkaian.


¡Error! Argumento de modificador desconocido..**4. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak.**

	BO/GIZARTE-ETXEB. (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA*					
Familiabakarra/Familiabikoa.	6,0	7,6	8,7	8,4	6,5
Kolektiboa.....	94,0	92,4	91,3	91,6	93,5
AZALERA ERABILGARRIA					
< 60 m ²	24,7	8,5	7,0	6,3	11,3
61-75 m ²	34,9	17,2	15,0	12,6	22,7
76-90 m ²	40,4	34,4	45,8	35,6	31,1
91-120 m ²	-	27,8	19,2	33,1	23,4
> 120 m ²	-	12,1	13,1	12,5	11,5
ERAIKUNTZA-FASEA*					
Bukatuta.....	18,2	10,8	5,8	9,4	13,4
Obran.....	59,4	75,9	74,3	81,6	70,5
Proiektuan.....	22,4	13,3	19,9	9,0	16,1

(*): Agentzia inmobiliarioetan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzari buruzko informazioak ez da barne hartzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..3. grafikoa.



3.1.3. Salgai dauden etxebizitza berriak prezioen arabera

- EAEko **etxebizitza libre berrien batezbesteko metro karratuko** prezioa 252.000 pezetakoa da, egonkortasun-ildoaz ezarritik azken urtean (1995eko laugarren hiruhilekoan 251.000 pezeta/m² zen).
- Lurraldeka, aurreko hiru hiruhilekoetan bezala, Arabako prezioak altuenak direla ikusten dugu, 264.000 pezeta/m² kostatzen direnez EAEko batezbestekoa +%5en gaitzen baitute. Gipuzkoa (254.000 pezeta/m²) ere batezbestekoaren zertxobait gaitetik dago eta Bizkaia berriz (247.000 pezeta/m²) -%2 azpitik.
- Duela urtebeteko datuekiko **lurralde-bilakaera** oso dibergentea da: Arabak oso igoera handia izan du (+%16) eta Gipuzkoa beste muturrean dago, urripen azpimarragarriarekin (-%4). Bizkaia erdibidean dago, %4ko igoerarekin.

- **Etxebizitza babestuari** dagokionez, batezbesteko metro karratuko prezioa 113.000 pezetakoa da, babes ofizialeko etxebizitzaren 119.000 pezeta/m² prezioaren eta gizarte-etxebizitzaren 86.000 pezeta/m² prezioaren artean ponderatutako batezbestekoa. Gipuzkoan gizarte-etxebizitzaren eskaintzarik izan ezenez gero, hiruhileko honetan babestutakoen segmentuko batezbesteko prezioa gainerako lurralde historikoetan baino askoz altuagoa izan da (123.000 pezeta/m², 106.000 pezeta/m² prezioaren ondoan).


¡Error! Argumento de modificador desconocido..**5. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien m²-ko prezioa lurralde historikoa.**

	BO/GIZARTE-ETXEBIZITZAK		LIBREAK	
	mPTA	± % (*)	mPTA	± % (*)
<i>Araba</i>	106	-4,5	264	16,3
<i>Gipuzkoa</i>	123	1,7	254	-4,2
<i>Bizkaia</i>	107	-9,3	247	3,8
<i>EAE</i>	113	-5,1	252	0,4

(*): *Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko aldaketa.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..4. grafikoa.



- Arreta etxebizitza libre berrietan jartzen badugu, tipologia, akabera, tamaina, merkaturatzeko modua, merkatuan daraman denbora, etab. bezalako **faktore baldintzatzaileen araberako metro karratuko prezioaren** aldagarritasuna analizatu behar da. Ondorengo taulan jaso diren datuak, akabera-maila *normaletik luxuzkora* igarotzean prezioetan gertatzen den %50 inguruko igoeraren adierazgarria da: 199.000 pezeta/m² batezbestekotik 304.000 pezeta/m² prezioraino estandar altueneko etxebizitzetan; apartamentuek, bestalde, 297.000 pezeta/m² batezbestekoa dute eta pisu handienetan (120 m²-tik gorakoak) batezbesteko hori 222.000 pezeta/m² prezioraino jaisten da...¹⁰.

¹⁰ Hau hurbilketa bat besterik ez da; faktore bakoitzaren inpaktua analizatzeko, analizatu beharreko aldagai bakar batean desberdintzen diren etxebizitzaren prezioak alderatu beharko lirateke (adibidez, kokapena, oinak, akabera etab. berdina eta tamaina desberdina dutenak) gainerakoaren eragozpenik gabe.

- Era berean, merkaturatzeko moduaren eragina nabaritzen da: hiruhileko honetan antzeman diren JIAek eskainitako etxebizitzak garestiagoak dira zuzenean sustatzaileek saldutakoak baino.

Halaber, inkestak lehendabiziko aldiz antzemandako salgai dauden etxebizitzak lagina lehendik osatzen zutenak bezain garestiak ez direla ikus daiteke; fenomeno hau JIA eta sustatzaileengan ematen da.

- Aurreko faktoreen konbinazioaren emaitza gisa (etxebizitza berria eta sustapen librekoa, eraikin kolektiboan dagoena, zuzenean sustatzaileak eskainitakoa, akabera “normalekoa” eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena), *eredu-etxebizitzaren* prezioa EAEn hiruhileko honetan eskaini diren etxebizitza libre berrien batezbesteko prezio globala baino %21 txikiagoa da. Arestian adierazitako prezioak moderatzeko joeraren aldeko faktorea da hau, inolako zalantzarik gabe.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..6. taula. **Etxebizitza libre berrien m²-ko prezioa ezaugarrien arabera.**

	<i>mPTA/m²</i>
ERAIKUNTZA-MOTA	
<i>Familiabakarra/familiabikoa.....</i>	194
<i>Kolektiboa</i>	248
AKABERA*	
<i>Luxuzkoa</i>	304
<i>Goi-mailakoa.....</i>	257
<i>Normala.....</i>	199
<i>Behe-mailakoa</i>	-
AZALERA ERABILGARRIA	
<i>< 60 m².....</i>	297
<i>61-75 m²</i>	250
<i>76-90 m²</i>	247
<i>91-120 m²</i>	246
<i>> 120 m².....</i>	222
ESKAINTZAN EGON DEN DENBORA-MERKATURATZEKO MODUA	
<i>Hiruhileko honetan sustatzaileak zuzenean.....</i>	238
<i>Hiruhileko honetan JIA bidez.....</i>	247
<i>Aurreko hiruhilekoetan sustatzaileak zuzenean</i>	249
<i>Aurreko hiruhilekoetan JIA bidez.....</i>	264
EREDU-ETXEBIZITZA	198

(*): JIAen bidez merkaturatutako sustapenei buruzko informaziorik ez da barne hartzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

- 1996ko laugarren hiruhilekoan lortutako **etxebizitza libre berriaren batezbesteko prezioa** 22,3 milioi pezetakoa da. Hau Gipuzkoako 23,3 milioi pezetako gehienekoaren eta Bizkaiko 21,3 milioi pezetako gutxienekoaren artean lortu da. Horrela, metro karratuko prezioei dagokienez ikusi duguna ez bezala, prezio unitarioei dagokienez Araba Gipuzkoaren atzetik dago; alderantzki honen arrazoia, etxebizitzaren tamaina desberdinetan eta bereziki Gipuzkoan jasotzen diren azalaren batezbestekoa handiagoa izatea dela garbi dago¹¹.
- **Babestutako etxebizitzaren batezbesteko prezioa** 8 milioi pezetakoa da, Arabako 8,4 milioi pezetako gehienekoaren eta Bizkaiko 7,9 milioi pezetako gutxienekoaren artean.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..**7. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien prezioa lurralde historikoa.**

	BO/GIZARTE-ETX.		LIBREAK	
	MPTA	± % (*)	MPTA	± % (*)
Araba.....	8,4	-5,6	22,3	9,9
Gipuzkoa.....	8,2	7,9	23,3	-7,2
Bizkaia.....	7,9	-8,1	21,3	2,9
EAE.....	8,0	-2,4	22,3	-2,6

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko aldaketa.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

- Salgai dauden etxebizitza berrien eskaintzako erregimenaren araberako **prezioen banaketari** dagokionez, berriz ere, babestutakoen eta librearen merkatuek prezioei dagokienez bi segmentu disjuntu osatzen dituztela ikus daiteke: babestutako etxebizitzaren %100 12 milioi baino gutxiagora eskaintzen dira, libreei dagokienez %4 besterik ez diren bitartean.
- Lurralde historiko bakoitzean eskaintutako etxebizitza librearen prezioen egiturari dagokionez, 20 milioi pezetatik beherako eskaintzaren pisu erlatiboak Araban izan duen beherakada garrantzitsua azpimarratu beharra dago, 1995eko laugarren hiruhilekoan %70

¹¹ Ikus 3.1.2. atala.


ordezkatzetik %47 izatera igaro baita. Proportzio hau %45ekoa eta %56koa da Gipuzkoan eta Bizkaian hurrenez hurren.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..**8. taula.** **Salgai** **dauden**
etxebizitza berrien banaketa prezio-tarteen arabera.

PREZIOA	BO/GIZARTE- ETXEB. (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
< 9 milioi pezeta	64,8	0,6	0,0	0,6	0,8
9 - 12 milioi pezeta.....	35,2	3,5	0,0	2,6	5,2
12 - 16 milioi pezeta.....	-	19,9	22,0	20,7	18,7
16 - 20 milioi pezeta.....	-	26,1	24,8	21,5	31,6
20 - 25 milioi pezeta.....	-	16,9	17,8	12,8	21,4
25 - 30 milioi pezeta.....	-	16,1	10,3	21,3	11,4
30 - 50 milioi pezeta.....	-	15,6	25,2	20,2	8,7
50 milioi pezetatik gora	-	1,1	0,0	0,3	2,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..**5. grafikoa.**



3.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK

3.2.1. Kuantifikazioa eta ezaugarriak

- 1996ko laugarren hiruhileko inkestaren bidez jasotako salgai dauden bigarren eskuko **etxebizitzaren kopurua** 12.188 unitatekoa da. **Geografikoki**, Arabak eskaintza-mota honen %19 biltzen du, Gipuzkoak %19 eta Bizkaiak %62.
- Balio absolutuetan, Arabak eta Bizkaiak aurreko urtean jasotako zenbatekoarekiko gehikuntza izan dute eskaintzan (+%18 eta +%9 hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, salgai dagoen etxebizitza erabiliaren bolumenak behera egin du (-%6)¹².
- Jaso dugun erabilitako etxebizitzaren **batezbesteko azalera erabilgarria** 89 m²-koa da EAE guztian. Bizkaian jasotzen da batezbesteko azalerarik txikiena, hau da, 86 m², Arabako eta Gipuzkoako 92 m²-ko batezbestekoaren aurrean.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..**9. taula. Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak lurralde historikoka.**

	ETXEBIZITZAK		PREZIOA/m ²		PREZIOA/ETXEBIZITZA	
	Kopurua	± % (*)	mPTA/ m ²	± % (*)	MPTA	± % (*)
Araba.....	2.293	18,1	262	4,8	22,1	-0,9
Gipuzkoa	2.375	-6,0	282	0,4	24,6	-12,5
Bizkaia.....	7.520	9,5	208	7,8	18,4	7,0
EAE	12.188	7,2	232	1,3	20,2	-4,7

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko kopuruarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.


¹² Aldaketa-tasa hauen kalkulari buruz aurrez esandakoa gogoratu behar da hala ere.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..10. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak.

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA				
Familiabakarra/Familiabikoa	3,5	6,5	7,0	1,4
Kolektiboa	96,5	93,5	93,0	98,6
AZALERA ERABILGARRIA				
< 60 m ²	19,7	12,5	18,1	22,4
61-75 m ²	25,0	24,9	20,2	26,5
76-90 m ²	25,5	30,9	23,3	24,5
91-120 m ²	18,2	20,3	21,4	16,6
> 120 m ²	11,7	11,4	17,0	10,1

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..6. grafikoa.



3.2.2. Salgai dauden etxebizitza erabilien prezioak

- ❑ Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren **metro karratu erabilgarriko batezbesteko prezioa** 232.000 pezetakoa da, hau da, aurreko urteko laugarren hiruhilekoan jasotakoa baino %1,3 handiagoa. Etxebizitza berrien kasuan antzemandako prezioei eusteko joera nabaritzen da hemen ere.
- ❑ **Lurraldeei dagokienez**, prezio altuena Gipuzkoan jaso da, 282.000 pezeta/m², Arabako 262.000 pezeta/m² eta Bizkaiko 208.000 pezeta/m² prezioen ondoan. Hala ere, Araban eta Bizkaian jaso diren aurreko urteko prezioekiko %5 eta %8 inguruko gehikuntzaren ondoan, Gipuzkoak prezio-maila berari eusten diola esan daiteke.
- ❑ **Etxebizitzaren prezioari** dagokionez, EAE osorako lortzen dugun balioa 20,2 milioi pezetakoa da, Gipuzkoan 24,6 milioira igotzen da, Araban 22,1 milioikoa da eta Bizkaian 18,4 milioikoa.
- ❑ **Prezio-tarteen arabera** egin den etxebizitza erabilien **banaketak** diferentzia nabarmenak islatzen ditu lurralde batetik bestera: 12 milioi pezetatik beherako etxebizitzaren proportzioa %32koa da Bizkaian, eta Gipuzkoan %16ra eta Araban %6ra besterik ez da iristen (portzentaia horiek %6, %3 eta %0koak dira, hurrenez hurren, etxebizitza berri librea kontuan hartuta). Beste muturrean, Gipuzkoan jaso den eskaintzaren ia %30ek 30 milioi pezetako prezioa gainditzen du eta portzentaia hauek %18 eta %10eraino jaisten dira Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren.
- ❑ **Etxebizitza erabilien eta berrien (libreen) merkatuan batezbesteko prezioek izan duten bilakaera** alderatuz, azken urtean lurralde-mailan Gipuzkoan bi merkatuetan prezioek behera egin dutela ikus daiteke eta, horrenbestez, etxebizitza erabiliak garestiago izaten jarraitzen duela. Araban, aldiz, etxebizitza berri libreak erabiliak baino igoera askoz handiagoa izan du eta, horrenbestez, bi merkatuetako prezioak parekatu egin


dira. Bizkaiian, bestalde, etxebizitza erabilia izan da gehien garestitu dena, baina bere batezbesteko prezioa etxebizitza berriarena baino askoz txikiagoa da oraindik ere¹³.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..11. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera.

PREZIOA	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
< 9 milioi pezeta.....	10,3	1,5	6,0	14,4
9 - 12 milioi pezeta.....	13,5	4,9	10,1	17,3
12 - 16 milioi pezeta.....	16,3	17,6	16,0	16,1
16 - 20 milioi pezeta.....	18,2	20,6	13,2	19,1
20 - 25 milioi pezeta.....	16,7	23,6	15,2	15,1
25 - 30 milioi pezeta.....	9,9	13,6	11,0	8,4
30 - 50 milioi pezeta.....	10,3	14,2	16,9	7,0
50 milioi pezetatik gora	4,7	4,0	11,6	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..7. grafikoa.



¹³ Etxebizitzaren lurralde-kokapen desberdinak (hiriburuak eta hauen inguruak-bestelako udalerriak) eragina izan lezake egoera desberdin hauetan.

4. kapitula

ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

- ❑ 1996ko laugarren hiruhilekoan egindako inkestan antzemandako **alokatzeko dauden** egoitza nagusi izatera destinatutako **etxebizitzen kopurua** 1.150 unitatekoa da. Eskaintza hau guztia partikularrena da (bigarren eskuko etxebizitzak) eta JIAen bitartez merkaturatzen da.
- ❑ Duela urtebetekoekin alderatuz antzemandako etxebizitzen bolumenak jasan duen **bilakaera** aztertzen badugu, -%0,7ko murrizketa orokorra izan dela ikus daiteke. Hala ere, Arabako lurraldean ez da murrizketarik izan; aitzitik, aurtengo kopurua iazkoa baino askoz ere handiagoa da, baina balio absolutuetan txikia izaten jarraitzen duela esan beharra dago¹⁴.
- ❑ Alokatzeko dauden etxebizitzen artean antzemandako **lurralde-banaketa** honako hau da: %17 Araban, %25 Gipuzkoan eta gainerako %58 Bizkaian.
- ❑ Etxebizitzen **tipologiari** dagokionez, ia guztiak (%99) eraikin kolektiboetan kokaturik daude. **Tamainari** dagokionez, batezbestekoa 81 m² erabilgarrikoa da, Arabako 89 m² eta Bizkaiko 78 m² artean.
- ❑ Hiruhileko honetan lortutako batezbesteko **hileko errenta** 86.000 pezetakoa da, hau da, -%4ko murrizketa izan da duela urtebetekoarekin alderatzen badugu. Lurraldeka, lortutako batezbesteko errentak oso homogeneoak dira Araban eta Gipuzkoan (92.000 eta 94.000 pezeta/hil hurrenez hurren), baina Bizkaiak maila txikiagoak ditu (81.000 pezeta/hil). Aurreko urtean antzemandako errentekiko bilakaerak Gipuzkoan bakarrik izan du igoera (+%3).

¹⁴ Kasu honetan ere, oraingo lagina nahiz duela urtebetekoa barne hartzen dituzten agentzien urte desberdinetako eskaintza alderatuz kalkulatu da tasa. Hala ere, eskaintza hain mugatua izanik, laginean aldaketa txikiak gertatzen badira tasa distorsionatuak eragin ditzakeela kontuan izan behar da.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. taula. **Alokatzeko eskaintako etxebizitzak eta errentak lurralde historikoa.**

	ALOKAIRU LIBREA		HILEKO ERRENTA	
	Etxebizitza-kopurua	± % (*)	mPTA/hil	± % (*)
Araba.....	200	157,9	92	-12,4
Gipuzkoa.....	283	-11,5	94	3,3
Bizkaia.....	667	-15,4	81	-8,0
EAE.....	1.150	-0,7	86	-4,4

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldageta. Aurreko urteko JIAen lagin-oinarri berarekin kalkulatu.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

¡Error! Argumento de modificador desconocido..2. taula. **Alokatzeko eskaintako etxebizitzaren ezaugarriak.**

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
AZALERA.....				
< 60 m ²	16,9	7,5	22,6	17,2
61-75 m ²	25,1	18,1	25,4	27,1
76-90 m ²	29,5	30,7	27,9	29,8
91-120 m ²	18,9	33,2	15,5	16,0
> 120 m ²	9,7	10,6	8,5	9,9
HILEKO ERRENTA				
25.000 PTA edo gutxiago.....	0,1	0,0	0,4	0,0
25.001 - 40.000 PTA	1,7	1,5	2,5	1,3
40.001 - 75.000 PTA	31,6	26,1	30,7	33,5
75.001 - 100.000 PTA	38,9	40,7	38,5	38,5
100.000 PTA baino gehiago	27,8	31,7	27,9	26,6

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1996ko 4. hiruhilekoa.

5. kapitula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA

5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA¹⁵

5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK

a) Eskainitako etxebizitza-kopurua

- Euskal hiriburuetan salgai dauden etxebizitza libre berrien kopurua (1.041 etxeb.) duela urtebetekoa baino +%11 handiagoa da (936 etxeb.) eta %37ko pisu erlatiboa du EAeko guztizkoan (%35 95-III hiruhilekoan). Hiriburuez kanpoko eremuak, aitzitik, ez du oso igoera adierazgarria izan (+%0,4 aurreko urtekoarekiko).
- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak bereiz aztertuz gero, Bilbo eskaintza-bolumena handitu duen hiriburu bakarra dela ikus daiteke, eta izugarri handitu du gainera (95-IV hiruhilekoan zituen 230etik 416ra igaro da), eta beste hiriburuetan behera egin du eskaintza-bolumenak. Hiriburuez kanpoko lurralde-eremuan, aitzitik, alderantzizko fenomenoak izan da: igoera garrantzitsua izan da, bereziki nabarmena Araban, eta Gipuzkoan, eta murrizketa Bizkaian.
- Hiriburuetakoko eskualde-egiturei dagokienez, hiriburuak berak kanpo utzita, lurralde historiko bakoitzean kuota oso desberdinak erregistratu dira: Gasteizen %12, Donostian %23 eta Bilbon %44. Lurraldeen gainerakoan, antzeman diren eskaintzaren pisu erlatiboak hauexek dira: Araban %27, Gipuzkoan %42 eta Bizkaian %20.

¹⁵ Sarreran azaldu den bezala, eremu geografikoen arabeko analisia hiru mailatan egin da: lurralde-hiriburuak, hiriburuetakoko eskualde-egiturak, hiriburuak izan ezik (“hiriburuetakoko eskualde-egituren gainerakoa”) eta lurralde historikoak, hiriburuetakoko eskualde-egiturak izan ezik (“lurralde historikoaren gainerakoa”).

¡Error! Argumento de modificador desconocido..1. taula. **Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak eremu geografikoen arabera.**

